

NAFARROAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA  
LAN-PENTSIO-BIZITZA  
**DUINA**  
SOBERANÍA PARA EL CAMBIO SOCIAL

URTARRILA  
**U30**  
ENERO

**GREBA  
OROKORRA**

---

**HUELGA GENERAL**



carta de los  
derechos sociales

  
euskal herriko  
eskubide sozialen karta



## LAN-PENTSIO-BIZITZA eta HEZKUNTZA DUINAK

Urtarrilaren 30ean, Pentsiodunen mugimenduaren deia erantzunez, greba orokorra deitu dugu Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren eskutik. **STEILAS** kartaren parte denez, grebarekin bat egiten du. Izan ere, arrazoiak soberan ditugu grebara deitzeko. Lan munduan egiturazkoa den prekariatearen aurrean, zerbitzu publikoen eta, bereziki, Hezkuntza Publikoaren suntsitzearen aurrean, pentsionisten murrizketen aurrean eta bizitzaren sostengarritasuna arriskuan jartzen duten neurrien aurrean, guk argi eta ozen aldarrikatzen ditugu lan, pentsio, bizitza eta hezkuntza duinak!

Garaia da azken urteotan murrizketekin kendu diguten guztia berreskuratzeko eta benetako eraldaketa sozialaren norabidean urratsak emateko. Pentsio, bizitza, lan-baldintzak eta hezkuntza duinak nahi eta exijitzen ditugu. Horregatik guztiagatik, planeta suntsitzen ari den sistema ekonomiko kapitalista, neoliberal eta heteropatriarkal honi aurre egiteko mobilizazio eta grebara joko dugu. Bestelako eredu bat eraikitzeke alternatibak garatzen ari garenok; langileok, sindikatuok, pentsiodunok, feministok, gazteok, ikasleok, ekologistok, eskubide sozialen alde eta arrazakeriaren kontra borrokatzen dugunok urtarrilaren 30ean kaleak beteko ditugu gure aldarrikapenekin.

Sektore bakoitzaren aldarrikapen propioek lekua izango dute greba honetan. **STEILAS**etik Hezkuntza Publikoaren aldeko aldarrikapenak jarriko ditugu mahai gainean, beti egin ohi dugun bezala. Administrazioaren utzikeriaren ondorioz zerbitzu publikoen estigmatizazioa garamatzen dinamika etetea premiazkoa dela ozen esango dugu. Zuriketa more zein berdetik haratago doazen hitz hutsaletatik neurrietara pasa dadin exijituko diogu gobernuari, bizitza erdigunean jarriz, Haurreskolak kudeaketa publiko komuneak, doakoak eta unibertsalak izan daitezzen bermatuz, esate baterako. Gure gizartearen aniztasunaren isla izan beharko litzatekeen eskola ezinbestean publikoa izan behar duelako, denona eta denontzat den eskola. Soilik horrela izango baitu gizartearen kohesio tresna gisa duen potentzialtasuna. Eskubideak zerbitzu publikoen bidez bermatu behar direla ez dezagun ahaztu, pribilejio bilakatzerik ez baldin badugu nahi, behintzat.

Esan bezala, hau ez da enplegu greba soila izango. Zaintza greba, kontsumo greba, pentsiodunen, ikasleen eta langabetuen greba ere izango da. Asko ikasi dugu mugimendu feministak burutu dituen azken bi grebetatik, non aniztasuna eta elkarlanak emaitza oparoak eman dituzten. Zalantzarik ez izan gure gobernu neoliberalen murrizketa politika eta atzerakoen aurrean elkarlana dela aukera bakarra. Ezinbestean barneratu behar dugu gure borroka denon borroka dela, gure gizartearen biziraupenaren borroka, alegia; finean, denak interdependienteak garelako. Urtarrilaren 30ean ez gara gu pentsionistak babestera aterako, beraiek baitira aspalditik gure etorkizuna babestearren borrokan daudenak. Horregatik guztiagatik, gurekin batera grebarekin eta mobilizazioekin bat egitera gonbidatzen zaituztegu. Gure borroka, guztion borroka delako!



# U-30 GREBA OROKORRA

## Lan-pentsio-bizitza. Hezkuntza arloko aldarrikapenak

*Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta (2013):* "Hezkuntzarako eskubidea Pertsona guztiek dute hezkuntza publiko, euskaldun, plural, laiko eta doakoa eskuratzeko eskubidea, aniztasuna integratuko duena eta berdinzalea izango dena generoaren ikuspuntutik (hezkidetzeta), ikuspegi kritikoa eta elkartasun internazionalista sustatuko dituena, hezkuntzaren etapa guztietan, bai derrigorrezkoetan eta bai derrigorrezkoak ez direnetan. Hezkuntza sistema propioa izango da eta euskal curriculum deritzana garatuko du. Zeharkako eran, hezkuntza emozionala ere hartuko du barne eta pertsonen jarduera kritiko eta sortzaileak bultzatuko ditu. Euskararen ezagutza eta erabilera bermatu behar zaizkie ikasle guztiei. Euskalduntzerako eskubidea bizitza osoko eskubide bat da."

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren aldarrikapenak bizi baldintza, pentsio eta bizitza duinen aldekoak izanda, **STEILAS**etik U30eko grebaren aurrean hezkuntza arloari dagozkion eskari zehatz eta zuzenak egiten ditugu.

### 0. LOMCE atzean utzi eta hezkuntza publikoaren alde ausardiaz egiteko garaia da.

- Hezkuntzaren pribatizazioa helburu duen legea gainditu.
- Hezkuntza Publikoari BPGaren %6 bideratu.

### 1. Lana banatu.

- Soldatapeko lana eta zaintza lan guztiak bateragarri egin: norbanakoarena, beste pertsonena eta Naturarena.
- Langabezian daudenei lana eskaini.
- Murrizketa garaiaren aurreko erosahalmena berreskuratu.

### 2. 0-3 Haur Hezkuntzako Lehenengo Zikloa: kudeaketa publiko komuna, doakoa eta unibertsala.

- Zaintzaren arduren eredu soziala irauli. Emakumeak bizitza sostengatzearen ardura soziala izan du. Merkaturaren indartu zenean, zainketen behar soziala merkantilizatu zen eta negozio bihurtzen hasi ziren. Derrigortuta baina modu naturalizatuan emakumeek zainketen ardura hartu zuten, eta hau guztion artean aldatu beharra da, eredua aldatuz.
- Lan baldintza duinak bermatu. Hezkuntzako ziklo honetan ari diren gehienak oso baldintza laboral prekarioekin daude. Administrazio publikoek haurreskolak zuzenean kudeatu ordez, pribatizatzea erabakitzen dute subkontratazioaren bitartez. Sektore feminizatua da eta profesional hauentzat baldintza desagerturatuak dira erabat.

- Hezkuntza etapa honen profesionalen beharrekin eta ezaugarriekin bat datorren hitzarmen espezifiko bat sortu.

### 3. Jubilazioa 60 urtekin hezkuntzako langile guztiontzat.

- 55 urtetan lanaldia nabarmen murriztu, eta 60 urtetan erretiroa hartzeko aukera eman.

### 4. Ikastetxe publikoetan neurri hauek ezarri lehenbailehen, behar diren esfortzu ekonomikoak bermatuz.

- Irakaskuntza ratioak gutxitu.
- Eskubide berezidun ikasleendako laguntza langile gehiago ezarri.
- Langileen etengabeko prestakuntzaren kudeaketa publikoa exijitu.
- Ikastetxe eta ekipamenduak berriztu.
- Eskola jantoki hezigarriak, ekologikoak eta bertakoak bultzatu. Langileen hezitzaile izaera bermatu. Eskolatan sukalde propioa, sukaldari eta sukalde laguntzaileak ziurtatu.
- Eskola baratzak eta ingurumen hezkuntza integrala garatu. Eskolako sukaldeak hornitu bertako eta sasoi-ko produktu ekologikoekin.
- Ikastetxeetan eremu hezkidetzaille gehiago sortu.
- Garbiketa eta garraio zerbitzuak publikatu.

### 5. Ikastetxeetan klima krisiarieta sozialari aurre egin.

- Lana hirietan zentralizatzearen kontrako bideari ekin, herrien aldeko apostua: eskola txikiak bultzatu eta ahal den heinean, garapenkeria kapitalistak hertsitakoak berreskuratu. Herritarrek haien herrietan bertan ikasteak dituen mugikortasun eta irisgarritasun onurak aldarrikatu.
- Eskola garraioa ibilgailu motorizatuetan kendu. Bakarrik eutsi landa eremuan, ezinbestekoa denean. Horren ordez, oinez eta bizikletaz egiteko ibilbide seguruak bultzatu, tokian tokiko eskola publikoetara.
- Energia konpainia ekozidekin kontratuen haustura bultzatu eta herritarren kooperatiba energetiko etikoekin kontratatu.
- Eskolen autonomia energetikoa bultzatu.
- 0 zabor eskolak sortu.
- Jolastokiak eta inguruko eremuak birnaturalizatu.

Beste gizarte eredu bat eraikitzeko Hezkuntzatik har daitezkeen erabaki politiko eta ekonomiko hezigarriak azpimarratu behar ditugu; etekin-ekonomikoa helburu duten neoliberalismo eta kapitalismoa atzean utziz.



URTARRILA  
**U30**  
ENERO

**LAN-PENTTSIO-BIZITZA DUINA**

**GREBA  
OROKORRA**

